

## **2007KO AZAROAREN 13AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA**

**LEKUA:** Beasaingo Udalerria

**ARETOA:** Batzar Aretoa

**EGUNA:** Hamahirua

**HILABETEA:** Azaroa

**URTEA:** Bi mila eta zazpi

**HASIERAKO ORDUA:** Goizeko bederatziak

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Bost (5)

**MAHAIBURUA:** Patxi Plazaola Muguruza

**BILDUAK:** Aitor Aldasoro Iturbe

Fernando Boada González

Jon Kortaberria Lasa

Julio Herreros Serna

**ETORRI GABEA:** Begoña Lasa Royuela

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

**1.- AURREKO AKTA.** 2007ko urriaren 16ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

### **2.- OBRA ESLEIPENAK:**

- Erretiratuen etxeko igogailua

Ezagutzera eman da, 2007ko urriaren 23ko Kontratazio-mahaiko proposamena:

**Gaia:** erretiratuen etxeko irispideetan arkitektura-oztopoak ezabatzeko obrak kontratatzea .

### **AURREKARIAK**

I.- , Gobernu Batzordeak 2007ko uztailaren 25eko daterekin ondorengo erabakia hartu zuen:

“**Lehenik.** 2007ko uztailaren 25eko datarekin kontratazio-mahaiak egindako proposamenaren arabera: Gobernu Batzordeak 2007ko martxoaren 16an deitutako erretiratuen etxeko irispideetan arkitektura-oztopoak ezabatzeko obrak kontratatze deialdia hutsik uztea.

**Bigarren.** Aipatutako obrak kontratatzeke deialdi berri bat egitea, onartutako proiektua eta lehiaketa arautuko duen agiri baldintzaren arabera. Lizitazio eta exekuzio epea hurrenez hurren: 122.876,65 € eta 4 hilabete.

II.- Deialdia, 2007ko abuztuaren 20an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta eskakizunak aurkezteko epean bakarrik URBYCOLAN, S.L. ek enpresak aurkeztu zuen, eskaintako prezioa, 122.867,58 €koa izanik. Egikaritze epea berriz hiru hilabete eta erdi.

III.- Lizitatuzaileak aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, ikusi da ondo dagoela.

IV.- 2007ko urriaren 19an, Udal aparejadoreak aurkeztutako eskaintzari buruz aldeko txostena egin du.

Horren ondorioz, kontratazio-Mahaiak Gobernu Batzordeari ondorengo proposamena egiten dio:

Erretiratuaren etxeko irispideetan arkitektura-oztopoak ezabatzeko obrak, URBYCOLAN, S.L.ri 122.867,58 €tan esleitzea, onartutako proiektua eta baldintza pleguaren arabera. Egikaritze epea, hiru hilabete eta erdikoa izango da.”

Aho batez onartu da proposamena.

- Alkartasuna Lizeoko horma egonkortzeko obrak

Ezagutzera eman da, 2007ko azaroaren 13ko Kontratazio-mahaiko proposamena:

### **AURREKARIAK**

I.- Gobernu Batzordeak 2007ko urriaren 17an erabaki zuen: "Beasaingo Alkartasuna Lizeoan horma bat egonkortzeko obrak" lehiaketa bidez kontratatzea, horretarako baldintza plegua onartuz, baina bakarrik aipatutako proiektuaren 02 eta 03 kapituluetan aurreikusia dagokionean. Lizitazio prezioa eta egikaritze epea, 200.469,48 €koa eta bi hilabetekoa izan zen hurrenez hurren.

II.- Lehiaketaren deialdia, 2007ko urriaren 25ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta eskaintzak aurkezteko epean "ANCLAJES Y CIIMIENTOS, S.L. " enpresak bakarrik aurkeztu zuen eskaintza, hain zuzen ere, 191.861,52 €koa eta egikaritze epea, bi hilabetekoa.

III.- Lizitatuzaileak aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, ikusi da ondo dagoela.

IV.- 2007ko azaroaren 9an, udal aparejadoreak aldeko txostena eman du, aurkeztutako eskaintzarekiko.

Horren ondorioz, Kontratazio-mahaiak Gobernu Batzordeari ondorengo proposamena egiten dio:

Beasaingo Alkartasuna Lizeoan horma bat egonkortzeko obrak, ANCLAJES Y CIMENTOS, S.L., enpresari esleitzea, onartutako proiektu eta baldintza pleguaren arabera. Egikaritze epea, bi hilabetekoa izango da.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da.

### **3.- KONSULTORIA ETA ASISTENTZIA KONTRATUAREN ESLEIPENA.** Beasaingo Udalari asistentzia urbanistikoa emateko.

Ezagutzera eman da, 2007ko azaroaren 6ko Kontratazio-mahaiko proposamena:

#### **“AURREKARIAK**

2007ko irailaren 18an, Gobernu Batzordeak erabaki zuen Beasaingo udalari profesional batek edo lantalde tekniko kualifikatu batek hirigintza asistentzia lehiaketa bidez kontratatzeko deialdia egitea, onartutako lehiaketa arautuko duen agiri baldintzaren arabera.

Deialdia 2007ko irailaren 28an GAO n argitaratu zen .

Proposamenak aurkezteko epean, bakarrik aurkeztu da, Jose Miguel Toledo Etxepare jaunak sinatutakoa, Jose Miguel Toledo, S.L. ordez.

Eskaintza aztertu ondoren ikusi da baldintza pleguan exijitzen direnak bete egiten dituela. Lizitatzailleak Beasaingo Udalari eskaintzen dizkio bere zerbitzuak 1997. urtetik, gogobetez.. Horren ondorioz eskaintza ontzat emanda.

Beraz, kontratazio-organoari proposatzen zaio, JOSE MIGUEL TOLEDO, S.L.,ri kontsultoria eta hirigintza asistentzia Beasaingo udalari emateko kontratua esleitzea, onartutako baldintza plegu eta berak aurkeztutako eskaintzaren arabera, egikaritze epea lau urtekoa izanik, kontratu administratiboa sinatzen denetik kontaktzen hasita.”

Fernando Boada jaunak esan du, abstenitu egingo dela, pleguan jasotzen den aipamen honekin ados ez dagoelako: “Esleipendunak ez du bere lanbidea kontratua egiten duen udalariaren jurisdikzioan burutu behar. Hala ere, eskumena izango du dokumentu hauen idazketa kontratatzeko prozeduretan parte hartzeko: plangintza orokorra eta garapena, baita Administrazioak edo erakunde publikoek edo gehieneko kapitala publikoa duten Sozietateek sustaturiko hiri eraikuntzen proiektuak.”

Horren ondorioz, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 4 (EAJ, EA, PP)  
Aurkako botoak: 0  
Abstentzioak: 1 (PSE-EE/PSOE)  
Etorri gabea: 1 (EB)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

#### **4.- OBRAK KONTRATATZEA:**

- Arriarango Intxaurpe Elkarte handitzea.

Ezagutzera eman da Arriarango Intxaurpe elkarte handitzeko obrak egiteko proiektu berri bate gin dela eta nahi zeta formalki ezin onartu, Gudugarreta, Arriaran, Garin, Astigarreta eta Aratz-Matxinbenta auzoetako Hiri-Antolamenduko Plan Bereziak oraindik behin betiko onespena ez izan, obrak lizitatzea proposatzen dela.

Fernando Boadak esan du lehen ere gai honena aurka azaldu zirela eta orain ere ez daudela ados.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 4 (EAJ, EA, PP)  
Aurkako botoak: 1 (PSE-EE/PSOE)  
Abstentzioak: 0  
Etorri gabea: 1 (EB)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin ondorengo erabakia hartu da:

**Lehenik.-** Arriarango Intxaurpe elkarte handitzeko obrak lehiaketa bidez kontratatzeke deialdia egitea, proiektua eta lehiaketa arautuko duen agiri baldintzaren arabera.

- 1.- Xedea: Intxaurpe elkarte handitzeko obrak kontratatzea.
- 2.- Kontratatzeke era eta prozedura: Lehiaketa irekia eta prozedura arrunta.
- 3.- Lizitazio prezioa: 333.363,25 €, BEZ barne.

4.- Enpresa sailkapena: C taldea, 2, 4, 5 eta 6. Azpitaldea, c maila.

5.- Espedientea: baldintza plegu administratibo eta teknikoak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Beasaingo Udalaren Harrera Bulegoan.

6.- Behin betiko bermea: adjudikazio aurrekontuaren %4a.

7.- Egikaritze epea: 6 hilabete.

8.- Proposamen eredia: Baldintza Administratibo pleguaren eranskinean azaltzen dena.

9.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: Proposamenak, Beasaingo Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 26 egunetan.

10.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: Pliken irekitzea Beasaingo Udaletxean egingo da, proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo lanegunean 13:00etan. Larunbata tokatuko balitz, hurrengo lanegunera pasatuko da.

11.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitzaileek Baldintza Administratiboan Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

- Igartzako jauregiaren zimenduak, ormak, egurrezko egitura eta estaldura kontsolidatzea.

Ezagutzera eman da Igartzako jauregiaren zimenduak, ormak, egurrezko egitura eta estaldura kontsolidatzeko obrak kontratatzekeo prestatu den baldintza plegua. Proiektuan aurreikusitako guztiak ez dira momentuz lizitatzen, bakarrik lehenengo fasea. Aldi berean adierazi da, proiektuaren aurrekontua (2.263.700,93 €), aurrekontuko baliabide arrunten %10a (1.202.233,13 €), baino handiagoa dela eta horren ondorioz Udalbatza Osoari dagokiola onartzea. Honek esan nahi du obrak kontratatzekeo deialdia ez dela GAOra bidaliko proiektua onartu arte, nahiz eta gaur baldintza plegua onartu.

Lizitazioa premiazko prozedura bitartez egitea proposatu da arrazoi hauengatik: "Bi fase ditu "Igartzako Jauregiaren Exekuzio, Kontsolidazio eta Berrikuntza" izeneko egitasmoak, lehenengoan eraikuntzaren egiturak kontsolidatu behar dira eta bigarren fase batean zaharberrikuntzaren margoketa bukaerako lanak burutuko dira.

1994. urtetik XVI. mendean eraikitako jauregi honen ezaugarrien azterketak eta ikertak egin eta gero hiru gabezi somatu egin dira:

- Mantenimendu eta berrikuntza ezaren ondorioz teilatua narriatu egin da.
- Funtzio estrukturala duten hainbat zutabe eta habek usteldu egin dira (Inertek enpresak 2005. urtean laser-escanerren bitartez dokumentutako kalteak).
- Jauregiaren oinarrien errekalderako mugimenduek eraikuntza osoaren egituraren kalteak sortarazi dituzte. (Eptisa Cinsa 2005. Urtean egindako Ikerketa Geoteknikoa).

Sistema estrukturalaren modelizazio matematikoa Alberto Zulueta arkitektoak gauzatu du, egitura osoaren eta zati bakoitzaren kalkuluak egin bait dira, baita ere aztertu dira estabilitatea eta oinarrien segurtasun koefizientea. Ikerketa hauen ondorio zuzena honako hau da: epe laburrean zurezko egitura eta zimentazioa sendotzen ez bada eraikuntza osoa hondamen prozesu batean sartuko dela, gure ondare historikoaren galera haundiak eta seguritate alorrean harriskuak sortarazten.

Aurreko azalpen guztiaren ondorioz jauregia ixtea eta premiazko zaharberrikuntza egitasmo honen lehenengo fasea ekitea guztiz beharrezkoa ikusten da.”

Premiazko prozedura erabiltzeak eskaintzak aurkezteko epea murrizten duenez, Fernando Boada jaunak eskatu du, GAOn deialdia argitaratu aurretik lizitazioaren berri egunkarietan emateko, lizitaziora aurkezteko asmoa dutenei denbora emateko eskaintzak prestatu ahl izateko.

Horren ondorioz, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

**Lehenik.-** Igartzako jauregiaren zimenduak, ormak, egurrezko egitura eta estaldura kontsolidatzeko (lehenengo fasea) obrak kontratatzeako deialdia egitea

1.- Xedea: Igartzako jauregiaren zimenduak, ormak, egurrezko egitura eta estaldura kontsolidatzeko (lehenengo fasea) obrak kontratatzea.

2.- Kontratatzeako era eta prozedura: Lehiaketa irekia eta premiazko prozedura.

3.- Lizitazio prezioa: 1.194.126,24 €, BEZ barne.

4.- Enpresa sailkapena: K taldea, 7. Azpitaldea, e maila.

5.- Espedientea: baldintza plegu administratibo eta teknikoak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Beasaingo Udalaren Harrera Bulegoan.

6.- Behin-behieneko bermea: 23.882,52 €

7.- Behin betiko bermea: adjudikazio aurrekontuaren %4a.

8.- Egikaritze epea: 12 hilabete.

9.- Proposamen eredia: Baldintza Administratibo pleguaren eranskinean azaltzen dena.

10.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: Proposamenak, Beasaingo Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 13 egunetan.

11.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: Pliken irekitzea Beasaingo Udaletxean egingo da, proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo lanegunean 13:00etan. Larunbata tokatuko balitz, hurrengo lanegunera pasatuko da.

12.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitzaileek Baldintza Administratiboan Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

## **5.- HURRENGO OSOKO BILKURAN TRATATU BEHARREKO INFORMAZIOA**

Alkateak informatu du hurrengo osoko bilkuran ondorengo gaiak gairerrendan sartzeko asmoa duela:

- Auzoetako Egitasmo Bereziarekiko alegazioak ebatzi eta behin betiko onartzea.
- 31 Areako (Agauntza) Xehetasun Azterlana behin betiko onestea, informazio publikorako epean ez delako alegaziorik izan.
- Igartza jauregiaren zimenduak, ormak, egurrezko egitura eta estaldura kontsolidatzeko prolektua onartzea.
- Kale garbiketa zerbitzuaren kontratua aldatzea, zerbitzua intensifikatu egiten delako.
- Urbialdeko eguneko zentroaren kudeaketa arautzen duen kontratua aldatzea, lan-hitzarmena dela eta prezioa gehituz.

- Beasain Lantzen-eko estatutuak aldatzea, alkatea ez denari sozietatearen lehendakaria izateko aukera eman ahal izateko. Aldi berean proposatuko da kontseilariak izendatzea.
- 2008. urteko aurrekontua.
- Eguneko zentro psikosozialerako eta osasun mentaleko lokalak egokitzeko, eraikuntza eta obren gaineko zergaren hobaria.
- 2008. urterako taxisen tarifak onartzea.

## **6.- ALKATETZAK EBATZI BEHARREKO GAI EI BURUZKO INFORMAZIOA.**

Alkateak emango duen ebazpenaren bidez, gai hauek izapidetuko dira:

- 31 Areako (Agauntza) urbanizatzeko jarduketa programaren behin betiko onespina.
- 31 Areako (Agauntza) urbanizazio proiektuaren hasierako onespina.
- Auzolan programaren esleipena. Bakarriz lizitatu da.

## **7.- GAI EZBERDINAK**

- Nahiz eta gai-zerrendan jarri Arangoiti egoitzaren hazkuntzarako, 0 kotaraino obrak egiteko baimenduko dela, aldeztatik Xehetasun Azterlana aurkeztu behar dute eta lehenik hau izpidetu egin behar da.
- Udazken kulturala amaitzeaz dago eta balantzea positiboa da.
- Anbulategiko biribilguneari buruz adierazi da, bizilagunekin bilera bat egingo dela.
- Arau Subsidiarioen Testu Bateratua GAO n 2007ko azaroaren 6an argitaratu da. Beraz indarrean sartu da.
- Ezagutzera eman da, bertso eskolan, 17 ikasle daudela, ludoteketan, 120 ume dabilzala eta gaztegunera gutxi gorabehera, 65 gaztetxo joaten direla.
- Euskaltegian, 70 pertsona matrikulatuta daude eta horietatik 16, bolondresekin euskera praktikatzeko dute.
- Kanpoko igerilekuei buruz esan, batz besterabiliztaile hauek ibili direla udaran:
  1. Ekainan: 489.
  2. Uztailan: 537.
  3. Abuztuan: 278.
  4. Irailean: 305
- Sinadura elektronikokoarekiko, kiroldegiko txartelaren inguruan egin den kanpaina aipatu da.



- 2008. urteko egutegiak udalerriko antzinako argazkiak jasoko ditu.
- Lanhitz programa. Enpresetan euskera planak egiteko, Eusko Jaurlaritzak bultzatu duen programa bat da. CAFek azpikontratatzeko dituen sei enpresa sartu dira programa horretan.
- Udalerriko toponimia mapa egin da.
- Merkagune. Hau ere Eusko Jaurlaritzaren programa da, udal merkataritza estrategiak bultzatzeko. Bareak elkartearekin batera egitasmo horretan sartzeko eskaera egingo da.

### **PREMIAZKO PUNTUA**

Denak aho batez onartu dute, ondorengo puntua tratatzea:

#### **HILOBIEN DESEHORZKETAK**

Aho batez ondorengo erabakia hartu da:

“Nitxoan beharra dagoenez eta hilerriko gune baten azterketa proposatzen denez, gelditzen den gunean desehorzketak egitea. Hau da, 1 zenbakitik hasi eta 165 zenbakiraino bitartean dauden nitxoak.”

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera 14,30etan amaitu da eta nik idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.